

IRAGARKIA, Trenbideen Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legean ezarritakoa haustegatik zehapen-espeditenteak irekitzen dituzten Garraio eta Herri Lan sailburuordearen ebazpenak jakinarazteko dena. 5590

IRAGARKIA, Trenbideen Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legean ezarritakoa haustegatik zehapen-espeditenteen gainean Garraio eta Herri Lan sailburuordeak emandako ebazpenak jakinarazteko dena. 5591

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones de la Viceconsejera de Transportes y Obras Públicas, incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario. 5590

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones de la Viceconsejera de Transportes y Obras Públicas, de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario. 5591

Xedapen Orokorrak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1464

36/2007 DEKRETUA, otsailaren 27koa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen dekretua aldatzeko dena.

Dekretu honen xedea da urriaren 25eko 340/2005 Dekretuari, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenari, zigor-ahalmena erabiliz burutu beharreko egitekoak Sailaren organo desberdinetan banatzea.

Alde batetik, antolaketako sistema bat ezarri nahi da, administrazioari eska dakioken kalitate eta zorroztasun tekniko-juridikoa eskaini eta zigortzeko eraginkortasuna bermatuko dituen, betiere, administrazioaren zigor-jardueraren oinarritzko printzipioak errespetatuz eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak zigor-ahalmen hori zein egoeratan erabili zehazteko faktoreak kontuan hartuta; esaterako, Sailari emandako eskumenen esparruko hainbat arlotako berezitasunak, edo erabil daitezkeen baliabideak.

Bestalde, eta aurreko idatz-zatian adierazitakoari loturik, arlo honetan gardentasun osoa lortu nahi da, Administrazioaren zigor-jardueran gorde beharreko segurtasun juridikoaren printzipioa babesteko, herritarrak bere legezko eskubideak berme guztiekin defenda ditzan eta zigor-arauak aplikatuko dituenari bere eginkizunean lagun diezaion.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

1464

DECRETO 36/2007, de 27 de febrero, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

El presente Decreto tiene por objeto incorporar al Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, lo concerniente a la distribución entre los órganos del Departamento de las funciones a desarrollar con motivo del ejercicio de la potestad sancionadora.

Por una parte, se trata de establecer un esquema organizativo que, siendo respetuoso con los principios genéricos que informan la actividad sancionadora de la administración y atendiendo también a factores que singularizan su ejercicio por parte del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, como son la especificidad de las múltiples materias que se integran dentro del ámbito competencial que tiene atribuido, o los propios recursos disponibles, procure la calidad y rigor técnico-jurídico exigible y garantice la eficacia sancionadora de la Administración.

Por otra, y en clara conexión con lo expuesto en el párrafo anterior, se trata de lograr la máxima transparencia posible en esta materia, con el fin de salvaguardar el principio de seguridad jurídica que debe presidir el ejercicio de la actividad sancionadora administrativa como presupuesto que permita a la ciudadanía ejercer su legítimo derecho a la defensa con las debidas garantías y facilite la labor a desarrollar por el propio sujeto encargado de aplicar las normas sancionadoras.

Ondorioz, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu ondoren eta Jaurilaritzaren Kontseiluak 2007ko otsailaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Lebenengo artikulua.– Aldatu egin da urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 5. artikulua; f) eta g) letrak honela idatzita geratu dira:

«f) Zigor-espedienteak ebazteko eskumena sailburuak duenean, espediente horiek hasteko sailburuari berari proposatzea.

g) Indarrean dauden xedapenek eman diezazkieten eskumen, ahalmen, prerrogatiba eta egiteko guztiak.»

Bigarren artikulua.– Aldatu egin da urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 8. artikulua; u) eta v) letrak honela idatzita geratu dira:

«u) Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eskumeneko arloan dagoen araudia hausteagatik hasitako zigor-espedienteen instrukzioa, baldin eta eskumen hori sail bereko beste zuzendaritza bati berariaz eman ez bazaio.

v) Indarrean dagoen zuzenbidezko ordenamenduak egotz diezazkiokeen egiteko guztiak.»

Hirugarren artikulua.– Aldatu egin da urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 12. artikulua; v) eta w) letrak honela idatzita geratu dira:

12. artikulua.– Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza.

«v) Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzari egotzitako arloko arauak hausteagatik hasitako zigor-espedienteen instrukzioa.

w) Indarrean dagoen zuzenbidezko ordenamenduak egotz diezazkiokeen egiteko guztiak.»

Laugarren artikulua.– Aldatu egin da urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 14. artikulua; n) eta o) letrak honela idatzita geratu dira:

14. artikulua.– Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza.

«n) Hirigintza-ikuskaritza, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 218.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Ikuskaritza-ahalmenaren barruan dago behar diren zigor-espedienteen instrukzioa.

o) Indarrean dagoen zuzenbidezko ordenamenduak egotz diezazkiokeen egiteko guztiak.»

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 27 de febrero de 2007,

DISPONGO:

Artículo primero.– Se modifica el artículo 5 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, quedando las letras f) y g) redactadas de la siguiente forma:

«f) Proponer a la Consejera la iniciación de los expedientes sancionadores cuya resolución sea de su competencia.

g) Todas las demás competencias, facultades, prerrogativas y funciones que se les atribuyan las disposiciones legales en vigor.»

Artículo segundo.– Se modifica el artículo 8 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, quedando las letras u) y v) redactadas de la siguiente forma:

«u) La instrucción de los expedientes sancionadores por infracción de las normas que regulan materias de la competencia del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, salvo que esté específicamente atribuida a otra Dirección de ese Departamento.

v) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico.»

Artículo tercero.– Se modifica el artículo 12 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, quedando las letras v) y w) redactadas de la siguiente forma:

Artículo 12.– Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental.

«v) La instrucción de los expedientes sancionadores por infracciones a las normas que regulan las materias atribuidas a la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental.

w) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico.»

Artículo cuarto.– Se modifica el artículo 14 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, quedando las letras n) y o) redactadas de la siguiente forma:

Artículo 14.– Dirección de Ordenación del Territorio.

«n) La inspección urbanística conforme a lo establecido en el artículo 218.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo. El ejercicio de la facultad inspectora comprende la instrucción de los correspondientes expedientes sancionadores.

o) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico.»

Bosgarren artikulua.– Urriaren 25eko 340/2005 Dekretuari beste bigarren xedapen gehigarri bat erantsi zaio, honela idatzita:

«Bigarrena.– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari dagokio zigor-ahalmena erabiltzea, Sailari egotzitako eskumenen esparruko arlo guztietan.

Estatuko ingurumeneko legerian jasota dauden arauak hausteagatik zigor-ahalmena Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 115. artikuluan xedatutakoaren arabera erabiliko da. Zehazki, aurreko artikuluaen aurreikuspenak aplikatu ahal izango dira honako legeria hausten bada: 38/1972 Legea, abenduaren 22koa, Atmosferako ingurunea babesteko dena; Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea; Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea; Ontzi eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; eta estatuko arloetako gainerako legeak.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legean, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoan, xedatutakoa hausteagatik zigorra jartzea Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eskumenekoa denean, zigor hori jartzea sailburuari dagokio arau-hauste arin eta larrietan, eta Jaurlearitzaren Kontseiluari, oso arau-hauste larrietan.»

Seigarren artikulua.– 340/2005 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria hirugarren xedapen gehigarria izatera pasatu da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko otsailaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta
Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

Artículo quinto.– Se añade una nueva Disposición Adicional Segunda al Decreto 340/2005, quedando redactada de la siguiente forma:

«Segunda.– Corresponderá al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio el ejercicio de la potestad sancionadora en todas aquellas materias que estén comprendidas dentro del ámbito competencial atribuido a ese Departamento.

La potestad sancionadora por infracciones contenidas en leyes estatales medioambientales se ejercerá conforme a lo dispuesto en el artículo 115 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco. En concreto, las previsiones del citado artículo serán de aplicación con motivo de las infracciones a los preceptos de la Ley 38/1972, de 22 de diciembre, de protección del ambiente atmosférico, la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del ruido, la Ley 10/1998, de 21 de abril, de residuos, la Ley 11/1997, de 24 de abril, de Envases y Residuos de Envases, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, y demás leyes sectoriales estatales.

La sanción por las infracciones a lo dispuesto en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, cuando sea competencia del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, corresponderá a la Consejera por las infracciones graves y leves, y al Consejo de Gobierno por las infracciones muy graves.»

Artículo sexto.– La Disposición Adicional Segunda del Decreto 340/2005 pasa a ser Disposición Adicional Tercera.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de febrero de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.